



GOBIERNO  
DE ESPAÑA

MINISTERIO  
DE EDUCACIÓN  
Y FORMACIÓN PROFESIONAL



**intef** INSTITUTO NACIONAL DE  
TECNOLOGÍAS EDUCATIVAS Y DE  
FORMACIÓN DEL PROFESORADO



MINISTERIO  
DE POLÍTICA TERRITORIAL  
Y FUNCIÓN PÚBLICA

# Gida didaktikoa

# GOBERNU IREKIA

## Lehen Hezkuntza



Zertarako prestatu dugu gida hau?.....	3
Nork prestatu du gida hau?.....	3
<b>IRAKASLEAREN KOADERNOA .....</b>	<b>4</b>
<b>1. saioa: Gardentasunarekin lanean .....</b>	<b>5</b>
Ainararen txangoa.....	5
Zer ikasi dugu?.....	6
<b>Gardentasuna sustatzeko jarduerak.....</b>	<b>7</b>
Gardentasuna lantzeko hizkiak .....	7
Jolasa: Erantzukizunaren ilara .....	8
<b>2. saioa: Parte-hartzearekin lanean .....</b>	<b>10</b>
Ainarak eta lagunek parkeak hobetu dituzte.....	10
Zer ikasi dugu?.....	11
<b>Parte-hartzea sustatzeko jarduerak .....</b>	<b>12</b>
Parte-hartzea sustatzeko esaldiak.....	12
Nik behar dudana besteek ere behar dute? .....	13
Parte-hartzea ulertzeko antzerkia .....	14
Parte-hartzearen horma-irudia.....	14
<b>3. saioa: Elkarlanarekin lanean .....</b>	<b>15</b>
Ainarak eta lagunek trafikoaren arazoa konpondu dute.....	15
Zer ikasi dugu? .....	16
<b>Elkarlana sustatzeko jarduerak.....</b>	<b>17</b>
Ikasgelan egiteko jolasak: Denok gara beharrezkoak.....	17
Enigmen jolasa.....	17
Egin dezagun txangoa .....	18
<b>Laburpena.....</b>	<b>18</b>
<b>Ebaluazioa egiteko irizpideak .....</b>	<b>18</b>
<b>IKASLEAREN KOADERNOA .....</b>	<b>19</b>
<b>Ainararen txangoa .....</b>	<b>20</b>
Zer ikasi dugu?.....	21
Gardentasuna lantzeko hizkiak .....	21
<b>Ainarak eta lagunek parkeak hobetu dituzte .....</b>	<b>22</b>
Zer ikasi dugu?.....	23
Parte-hartzea sustatzeko esaldiak.....	24
<b>Ainarak eta lagunek trafikoaren arazoa konpondu dute.....</b>	<b>25</b>
Zer ikasi dugu?.....	26
<b>Laburpena.....</b>	<b>26</b>

## ZERTARAKO PRESTATU DUGU GIDA HAU?

Gobernuak eta administrazio publikoak gizartearen erritmo berean aldatzen dira, eta gardenak izan nahi dira, herritarrengandik gertuago egoteko eta herritarren eskakizunak aintzat hartzeko. Horrek esan nahi du **Gobernu Irekia** deritzogun horren alde daudela.

Gida hau **Espainiako III. planari** lotutako tresna bat da, **Gobernu Irekirako Aliantzarena**. Dokumentu honen bidez, **gardentasuna**, **parte-hartzea** eta **elkarlana** kontzeptuak azaldu nahi zaizkie Lehen Hezkuntzako ikasleei, gai publikoei lotuta.

**Gardentasunean**, **parte-hartzean** eta **elkarlanean** oinarritutako hiru istorio baliatuz, **Gobernu Irekiaren** balioak transmititu nahi zaizkie Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleei. Hala, gizarte irekiagoa eta arduratsuagoa eraiki nahi da, agintari publikoekin zorrotzagoa dena.

Horretarako, hiru istorio erabiliko ditugu. Hiruretan, **Ainara** da protagonista, gure herrialdeko hiri ertain batean bizi den 5. mailako ikaslea. Ainarak **Gobernu Irekia** deritzogun horren balioak ulertzen lagunduko digu.

*Agiriaren azken data: 2018ko maiatza*

## NORK PRESTATU DU GIDA HAU?



**J. Ignacio Criado.** Zientzia Politikoaren eta Nazioarteko Harremanen Saileko irakaslea, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean, eta Center for Technology in Government zentroko *research fellow* (State University of New York, SUNY, at Albany). NovaGov-en fundatzaileetako

bat, eta NovaGov.Lab-en zuzendari nagusia (Gobernuaren Laborategia Berrikuntza Publikorako). Aholkularitza, ikerketa eta irakaskuntza lanak egiten ditu Gobernu Irekiaren, Administrazio digitalaren, berrikuntza publikoaren, gizarte-sareen eta administrazio publikoen, elkarrengarritasunaren eta erakundeen arteko elkarlanaren arloan. Administrazio eta Kudeaketa Publikoari buruzko hainbat lan argitaratu ditu. Berrikuntza Publikoari, Gobernu Irekiari eta Administrazio Digitalari buruzko zenbait ikasgai ematen ditu, besteak beste, Ortega y Gasset Institutuaren Zuzendaritza Publikoari buruzko Masterrean, Herri Administrazioaren Institutu Nazionalaren Zuzendaritza Publikoari buruzko Masterrean, Granadako Unibertsitatearen Kudeaketa Publikoari buruzko Masterrean eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoaren Demokrazia eta Gobernuari buruzko Masterrean.

 @jicriado



**Vicente Pastor.** Ikertzailea da Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Zuzenbide fakultatean, Zientzia Politikoaren eta Nazioarteko Harremanen Sailean. Ikertzailea da NovaGov.Lab-en, Gobernuaren Laborategia Berrikuntza Publikorako. Politika eta Administrazio

Zientzietan lizentziaduna (Valentziako Unibertsitatea). Demokrazia eta Gobernuari buruzko Masterra (Madrilgo Unibertsitate Autonomoa). Zuzendaritza eta Azterketa Politikoan diplomaduna (Valentziako Unibertsitatea).

 @vipaspa

# EZAGUTU GOBERNU IREKIAREN BALIOAK AINARAREKIN ETA BERE IKASKIDEEKIN



Gida didaktikoa  
Lehen Hezkuntzarako  
- Irakaslearen koadernoak -

## 1. SAIOA: GARDENTASUNAREKIN LANEAN

**Gobernuen eta administrazio publikoen arloan, gardentasunak** esan nahi du Gobernuarekin eta Administrazio Publikoekin lotura duten gai guztiak zabaltzea, herritarrek informazioa eskura izateko –formatu berrerabilgarrian– eta haiengandik gertuago egoteko. Gardentasunak herritarrei itzultzen die Administrazio Publikoekin eta Gobernuaren eskuetan utzi duten boterearen zati bat; hala, hiritarren parte-hartzea eta elkarlana sustatzen dira.

“Ainararen txangoa” istorioaren bitartez, ikasleei gardentasuna eta berrikuntza kontzeptuak azaldu nahi zaizkie; horretarako, istorioan Ainarak eta bere ikaskideek informaziorik ezagatik duten arazoa konpondu behar dute.

Zergatik izan behar dira gardenak administrazio publikoak eta gobernuak? Gardentasuna modu egokian erabiliz gero, hari lotutako hainbat balio positibo transmititzen dira –zintotasuna, konfiantza, leialtasuna eta abar– bai sektore publikoan bai gizartean, oro har. Hala, gobernuak eta administrazio publikoak gertuagoak dira, eta errazagoa da haiekin identifikatzea. Hori da Ainararen txangoa istorioaren eta bere ikaskuntzaren bitartez transmititu nahi den ideia nagusia.

Informazio gardena eskaintzean, zorrotzago aztertzen dira gobernuak eta administrazio publikoak (informazio gardena eskainiko ez balute baino); hori dela eta, hartzen dituzten erabakiak eta ezartzen dituzten politikak legitimoagoak dira. Gardentasunari esker, interes-gatazkak eragin ditzaketen egoerak gutxitzen dira, eta, beraz, horrelako egoerek izan zitzaketen ondorioak ia-ia desagerrarazten.

Hitz batez, administrazio publikoekin eta gobernuarekin sektore publikoarekin eta bestelako gobernu-prozesuekin zerikusia duen informazioa zabaltzean, errazagoa da herritarrei kontu-arrazoia ematea.

### Ainararen txangoa

Ainarak 10 urte ditu. Kostaldeko hiri ertain bateko Txantxangorria ikastetxeko ikaslea da. Langile fina da, eta harreman ezin hobea du bere ikaskideekin.

Gabonetako oporrak bukatu eta denbora gutxira, bolada euritsu eta hotza izan ondoren, Ainara gaizki sentitzen hasi zen.

–*Maisu, ez nago ondo*—esan zion maisu Kepari.

–*Aitari deituko diogu. Medikuarenera eramango zaitu, azterketa egin diezazuten. Uste dut hotzeria duzula*—erantzun zion.

Kepak aitari deitu zion telefonoz, eta komentatu segur aski alabak sukarra zuela. Minutu gutxian heldu zen Ainararen aita, Ander, ikastetxera.

–*Goazen, hitzordua eskatu dut medikuarenean.*



Osasun-zentroan, medikuak Ainarari esan zion hotzeri galanta zuela, eta sukar altua. Beraz, astebete etxean geratu behar zela, eskolara joan gabe.

–*Kulturaren asteko ekintza guztiak galduko ditut*—esan zuen Ainarak, atsekabez.

–*Ez kezkatu, maitea. Kontatuko dizute zer egin duten.*

Ainara etxean gaixorik zegoen bitartean, eskolan kulturaren asteko ekintzak prestatu zituzten: bizikidetzak jardunaldiak aitona-amonekin, musika kontzertuak, argazkien erakusketak eta askoz gehiago.

Irakasleak ikasleei esan zion hurrengo astean, astelehenean, txangoa egingo zutela autonomia erkidegoaren hiriburura, Gobernu Jauregia, Parlamentua eta Gobernuaren Ordezkaritza bisitatzerako, eta, beraz, gurasoen baimena sinatuta eraman behar zutela. Ikasleak harritu egin ziren, ez baitzuten halakorik espero, eta poztu ere bai.

Astelehenean, txangoaren egunean, Ainararen aitak eskolara eraman zuten alaba, egunero bezala. Ainarak motxila zeraman, liburuekin eta hamaiketakoarekin, eskolara bueltatzeko gogotsu. Jendearen joan-etorria nabaria zen eskolan. Hala ere, Ainarak eta aitak ez zuten ezer arrarorik sumatu, beraz, agur esan zioten elkarri.

–*Egun on, Ainara. Pozten naiz zu berriro ikusteaz! Ikusten dut sendatu egin zarela.*

–*Egun on, maisu. Zer gertatzen ari da gaur eskolan?*—galdetu zion, ikaskideak autobusera igotzen zirela ikustean.

–*Gaur txangoa egingo dugu, hiriburura. Gurasoen baimena ekarri duzu?*

–*Txangoa? Ez nuen horren berririk!*—bota zuen Ainarak, harrituta.

–*Sentitzen dut, Ainara. Uste nuen bazenekiela. Gaur txangoa dugu. Baina, gurasoen baimenik gabe, ezin zara etorri.*

Mikelek, Ainararen ikaskideak, elkarrizketa entzun zuen, eta, autobusera igotakoan, beste ikaskideei kontatu zien gertatutakoa. Minutu gutxian, denak autobusetik jaitsi eta Keparengana hurbildu ziren.



*–Ainara gurekin ez badator, ez dugu txangoa egin nahi—esan zion Mikelek Kepari. Ainara ere gurekin etortzea nahi dugu. Zergatik ez diozu aitari deitzen, eta baimena sinatzeko eskatzen?*

*–Pozten naiz hori entzuteaz, Mikel. Arrazoi duzue. Txangoari buruzko informazioa eskolaren webgunean argitaratuta egon beharko litzateke, aurrerapen nahikoarekin. Primeran iruditzen zait Ainararekin solidarioak izatea. Aitari deituko diot telefonoz.*

Minutu gutxi geroago, Ainararen aita eskolara itzuli zen, eta, baimena sinatutakoan, autobusa martxan jarri zen.

Bidean zeudela, irakasleak mikrofonoa eskatu zion gidariari, eta ikasleei zuzendu zen.

*–Gaur egin duzuen oso garrantzitsua da. Egoera zaila zen, eta laguntza eskaini diozue zuen ikaskide Ainarari, bera ere gurekin etor zedin. Harro egon zaitezke. Zuei esker, hemendik aurrera, eskolak informazio guztia argitaratuko du webgunean, eta, horrez gain, mezu elektronikoa bidaliko diegu gurasoei.*

Txangoan, Ainarak eta bere ikaskideek gauza mordoak ikasi zuten: Gobernu Jauregia nolakoa den, Parlamentu Autonomikoak nola funtzionatzen duen eta Gobernuaren Ordezkaritzaren funtzioak zeintzuk diren.

Ainarak eta ikaskideek sustatu zituzten ikastetxean gardentasunaren printzipioak aplikatzen hasteko neurriak. Haiei esker, Txantxangorria ikastetxea Gobernu Irekirantz zuzendu zen, eta, horretarako, gardentasuna izan zen lehen neurria.

## Zer ikasi dugu?

Ainararen txangoa kontakizunean honako hau ikasi dugu:

- Sareko gizartea garatzen ari gara mundu mailan, batez ere gizarte-sareak eta 2.0 web-eko teknologiak baliatuz. Administrazio Publikoak (kasu honetan, Txantxangorria ikastetxeak) bere jarduerari buruzko **informazioa eman behar** du. Informazioa publikoa ez bada, eskatu ahal dugu.
- **Gardentasuna ezinbestekoa da** ikastetxe, erakunde publiko eta sistema demokratiko guztietan.
- Gurasoei Internet bidez **informazioa helarazteko sistema** berria gardentasuna sustatzeko bide bat da. Zenbat eta berrikuntza gehiago, orduan eta gardenagoak izango dira erakundeak.


## Gardentasuna lantzeko hizkiak

Hona hemen gardentasunari buruzko hizki zopa. Gardentasunaren balioarekin lotura duten hitz hauek bilatu behar dituzu.

**ERRESPETUA - PARTE-HARTZEA - ZINTZOTASUNA - KONFIANTZA  
BERRIKUNTZA - ZABALTASUNA - EGIA - GARDENTASUNA**

F Y T R A N S P A R E N C I A  
R I T E O T E P S E R L E U F  
A R P A R T I C I P A C I O N  
E G A T P H U A N Q U I P O D  
I P O L I U T P C R O J O A E  
A N D A R M K V E C T O D Z L  
E T N E C I V I R E C R T E A  
B L A O N L P U I R E C O U R  
E M G H V D E L D V T E S Q I  
C O N F I A N Z A C R R O N D  
R B C E P D C C D H E R B A O  
E R A M O S B I V A P I L R E  
A O E I U Z S D O G Ñ L I F U  
B L U F H I A I C N E L A V I


**ERRESPECTUA - PARTE-HARTZEA - ZINTZOTASUNA - KONFIANTZA**  
**BERRIKUNTZA - ZABALTASUNA - EGIA - GARDENTASUNA**



**Jolasa: Erantzukizunaren ilara**

Jardueraren helburu nagusia da ulertaraztea hartzen ditugun erabaki guztiek, nahiz eta txikiak izan, hiritar guztiei eragiten digutela, eta besteengan ere ondorioak izan ditzaketela.

**Jarduera nola egin:** haurrak ilaran jarri behar dira, eta bakoitzak aurrekoaren gerriari heldu behar dio (ilarako lehenengoak izan ezik, jakina). Irakasleak mugimendu jakin batzuk egiteko aginduko die, baina helduta duten ikaskidea askatu gabe.





## Jardueren adibideak

- Ibiltzea, alborantz ibiltzea, atzerantz ibiltzea eta abar.
- Txaloa jotzean edo musika gelditzean, noranzkoa aldatzea.
- Jauzi egitea: bi salto aurrerantz, bat atzerantz eta abar.
- Ikasle batek hitz bat esatea; jarraian, alboan duen ikaskideak hitz hori errepikatzea eta, ondoren, beste hitz bat eranstea; eta segida jarraitzea ilara bukatu arte.

Jolasa bukatutakoan, komeni da denok lurrean esertzea, zirkulua osatuz, eta honelako gaiei heltzea:

- Zaila izan al da agindutakoa betetzea? Zergatik?
- Zer da zailagoa, ariketak bakarka egitea ala taldeka? Zergatik?
- Eztabaida: ikaskideen mugimenduek, batez ere hurbilen zeuden ikaskideenak, norberarenak baldintzatzen zituzten.
- Ulertzea mezua ulertzea oso zaila dela informazioa egoki transmititzen ez denean.

## 2. SAIOA: PARTE-HARTZEAREKIN LANEAN

**Herritarren parte-hartzea** prozesu bat da; horren bitartez, herritarrek politika publikoak diseinatzen, kudeatzen eta ezartzen laguntzen dute, ekintzen bitartez. Herritarrek jarrera aktiboa dute, beren eskubideak baliatuz eta guztion onari lotutako obligazioak sortuz. Alde batetik, parte-hartzea elkarlaneko **prozesu** inklusiboa da, zeharkakoa, jarraitua, eskalagarria, antolatuta dagoena, transformatzailea, koherentea, banatuta dagoena eta ahalduz duena. Horrez gain, herritarren parte-hartzea **jarrera** bat da, autonomia, askatasuna eta erantzukizuna eskatzen dituena. Horretarako, enpatia, errespetua, konfiantza, konpromisoa eta gizatasuna behar dira. Bestetik, herritarren parte-hartzea **eskubide** bat da. Horrek esan nahi du herritarrek erabaki publikoetan aktiboki parte hartu dezaketela, eta, aldi berean, guztion onaren alde egiteko obligazioa dutela.


Bigarren istorioan, "Ainarak eta lagunek parkeak hobetu dituzte" izenekoan, protagonistak herritarren parte-hartzearen ideia azaltzen du, prozesu, jarrera eta eskubidea dela argituz.

Halaber, parte-hartzeak eragiten dituen erronkak azpimarratzen dira. Administrazio publikoek eta gobernuek egoki kudeatzen badituzte, erronka horiek aukera berriak izan daitezke, betiere, administrazio publiko bakoitzaren izaera eta antolakuntza kontuan hartuta.

Parte-hartzea administrazioen eta gobernuen jarduera osoan aplikatu behar da, arlo eta jarduketaren eremu guztietan. Hau da, ezin da izan gai publikoetan aplikatzen den kanpoko elementu bat; zeharkakoa izan behar da, eta Administrazio Publikoaren programa eta ekimen guztietan aplikatu behar da.

### Ainarak eta lagunek parkeak hobetu dituzte

Ainara eskolara doa, pentsakor. Eskolarako bidean, autobusetik, hiriko parke eta lorategiei erreparatu die. Konturatu da hiriko parkeek berdegune eta atseden hartzeko gune zabalak dituztela, baina parke bakarrak duela haurrek jolasteko lekua.



Eskolara heldutakoan, ikasgelan sartzeko zain daudela, Aitor eta Irune parkeei buruz hizketan hasi dira:

—Atzo Gernika parkean egon nintzen jolasean, txakurrarekin. Jolasteko guneak itxita zeuden, konponketak egiten ari direlako. —esan zuen Aitorrek, etsipen aurpegia jarritz.

—Nire auzoko parkeak ere ez du jolasteko gune onik. Jolasteko egitura gehienak hondatuta daude, beraz, gurasoek ez didate uzten bertan jolasten. —adierazi zuen Irunek, hastear zegoen eskolarako liburuak motxilatik ateratzen zituen bitartean.

—Ideia bat daukat! —oihukatu zuen Ainarak—. Eskolako iragarki-taulan ikusi dut Udalak Haurren Kontseilua sortuko duela.

—Haurren zer? —galdetu zion Aitorrek, ulertu ezinik.

—Haurren Kontseilua. Amak azaldu dit haurren talde bat dela, gure izenean jardungo duena. Hala, Udalari eskatuko dio gure, hau da, haurron, arazoak konpontzeko.

—Jesus, Ainara, egunean zaude! —bota zuen Irunek, algaraka.

—Kontua da galdera pila egiten ditudala —esan zuen Ainarak, txantxetan. Kontseilu hori aukera ezin hobea da hiriko parkeetako gabeziak komentatzeko, eta bertan jolasteko aukerarik ez dugula azaltzeko. Parke guztiak hobetu behar dira, jolasteko guneak handitzeko.

—Orduan, Haurren Kontseiluarekin harremanetan jarriko al gara arazoa konpontzeko? —esan zuen Aitorrek, konbentzituratuta.

Ainarak baimena eskatu zion maisuari, ideiar buruz hitz egiteko. Ikaskideei azaldu zion hiriko parkeetan zeuden gabeziak, eta hiriko Haurren Kontseiluan parte hartzeko aukera. Denak ados zeuden jolasteko guneak hobetu behar zirela.

—Ba al dago boluntariorik? —galdetu zuen irakasleak— Ikasle kopurua ikusita, bi ordezkari egon daitezke.

—Niri gustatuko litzaidake ordezkaria izatea. Beste norbait animatuko da? —bota zuen Ainarak.

—Bai, ni —erantzun zion Aitorrek.

—Baita ni ere! —esan zuen Liherrak, oiuhuka.


—Ni ere bai —esan zuen Irunek.

Denek elkarri begiratu zioten: lau hautagai zeuden, baina bi ordezkari baino ez ziren behar. Hortaz, konponbide bat bilatu behar zuten. Irakasleak proposamena bota zien:

—Bada, zergatik ez duzue bozketa egiten, zuen bi ordezkariak hautatzeko? Bi pertsona horiek erantzukizun handia dute, izan ere, haiek transmitituko dituzte zuen eskariak. Beraz, hobe da denon artean eta demokratikoki aukeratzea nortzuk izan behar diren.


Idea primeran iruditu zitzaion, beraz, goiz hartan bertan prestatu zuten bozketa, boto-ontzia eta guzti, irakaslearen laguntzarekin. Lau hautagaien artean, ikasle bakoitzak bi hautatu behar zituen, horien izenak paper batean idatzi eta paper hori boto-ontzian sartu, bozketetan beti egiten den bezala.

Botoak zenbatu zituzten; Ainara eta Aitor izan ziren garaileak, hortaz, lanari ekin zioten. Ikaskideekin hitz egin eta koaderno batean idatzi zituzten bakoitzaren auzoko lorategi eta parkeetako gabeziak. Izan ere, hiriko txoko guztietatik etorritako ikasleak zeuden eskolan.



Ondorioa hauxe izan zen: hiriko 10 parke (guztira, 22 zeuden hirian) hobekuntzak behar zituzten. Batzuetan, altzariak aldatu behar ziren; beste batzuetan, jolasteko guneak handitu; eta baten batean, haurrentzako guneak prestatu.

Hiriko Haurren Kontseiluaren hurrengo bileran, hitza hartu zuten Ainarak eta Aitorrek, eta parke eta lorategien zinegotzi arduradunari eta alkateari transmititu zizkioten ikaskideen proposamenak.



*—Eskerrik asko, Ainara eta Aitor—esan zien alkateak—. Harro egon zaitezke, lan bikaina egin duzue. Bagenekien hobekuntzak egin behar zirela, baina ez genekien egoera hain larria zenik. Hurrengo osoko bilkuran, Udal Gobernuak akordio bat proposatuko du, hiriko parkeetan haurrek jolasteko guneak hobetzeko edo zaharbertzeko. Denon artean zaindu behar ditugu parke eta lorategiak.*

Ainara eta Aitor poz-pezik zeuden: buru-belarri lan egin eta gero, eta ikaskideen parte-hartzearekin, lortu zuten Udalak konpromisoa hartzea hiriko parke eta lorategietan jolasteko guneak hobetzeko.

Urtebete geroago, parke gehienek jolasteko gunea zuten. Hala, Ainararen ideia irmotuz joan zen, ikasle guztien laguntzarekin, eta egia bihurtu zen. Une horretatik aurrera, Ainarak, Aitorrek, Liherrek, Irunek eta lagun guztiek jolasteko gune bikainak izan zituzten hiriko parke guztietan.

## Zer ikasi dugu?

Istorian, Ainarak eta ikaskideek lortu dute hiriko parkeetan jolasteko dauden guneak hobetzea. Hortaz, zenbait gauza ikasi ditugu:

- Ingurunea zaindu behar da. Ezin dugu ahaztu parkeak, bestelako instalazio publikoak eta berdeguneak guztionak direla, eta denon ardura dela horiek zaintzea eta hobetzen laguntzea.
- Instalazio publikoetan zerbait hondatuta dagoela ikustean edo gabeziaren bat dagoela uste dugunean, **agintariei eskatu** behar diegu horiek konpontzeko. Errespetuz eta gizatasunez, gure beharrak jakinarazi behar dizkiegu gobernuei eta administrazio publikoei.
- **Parte hartzeko mekanismoak** daude. Kontakizunean, adibidez, Ainarak eta Aitorrek hiriko Haurren Kontseiluan jakinarazten dituzte beren eskakizunak. Beti bilatu behar da modurik egokiena erabaki publikoetan parte hartzeko.
- **Denok dugu parte hartzeko eskubidea.** Istorian ikusi dugun bezala, ikaskideek Ainara eta Aitor hautatu dituzte ordezkari; hori dela eta, ikaskideen eskakizunak biltzen dituzte, eta dagokien pertsonari transmititzen.
- **Ahal den guztietan parte hartu behar da.** Gure iritzia entzunarazi behar dugu. Hori dela eta, erabaki publikoak hartzeko prozesuan parte hartu behar dugu.

### Parte-hartzea sustatzeko esaldiak

Jarduera honetan, ikasleek parte-hartzearekin zerikusia duten zenbait esaldi osatu behar dituzte. Horretarako, jarraian ageri diren hitzak erabili behar dituzte. Hasieran, bikoteka egingo dute lan; gero, denek batera.

## ADOS JARRI - PREMIAK - LEGEA - PARTE HARTZEN - ESKUBIDEA KONPROMISO - SOLIDARIOA - DEMOKRAZIA - ASKATASUNA - BOTOA EMAN

Adierazteko \_\_\_\_\_ dagoela esaten dugu publikoki nahi duguna esan, idatzi edo egin ahal dugunean.

Ikastetxeko talde guztiek \_\_\_\_\_ dute Eskola Kontseiluko kideen hautaketa-prozesuan.

Talde sozialak \_\_\_\_\_ behar dira demokraziak behar bezala funtziona dezan.

Espanolek \_\_\_\_\_ dezakete 18 urtetik gora dutenean.

Beharbada, gure \_\_\_\_\_ eta gure gurasoenak ez datoz bat, baina aintzat hartu eta bete behar ditugu.

Demokraziak funtziona dezan, gobernuek eta administrazio publikoek \_\_\_\_\_ errespetatu behar dute beti.

Gure ikasgelak \_\_\_\_\_ bezala funtzionatzen du, hau da, aske hitz egiten dugu, eta, erabakiak hartu baino lehen, bozkatu egiten dugu.

Beste pertsonak ere \_\_\_\_\_ dute beren beharrak adierazteko, eta errespetatu egin behar dugu.

Herri \_\_\_\_\_ da gehien behar dutenei laguntzen diena, herritar guztiek eskubide berdinak izan ditzaten.

Bozketa egin ondoren erabakitakoa betetzeko, \_\_\_\_\_ irmoa hartu behar dugu denok.



“Parte-hartzea sustatzeko esaldiak” jolasaren ebazpidea:

## ADOS JARRI - PREMIAK - LEGEA - PARTE HARTZEN - ESKUBIDEA KONPROMISO - SOLIDARIOA - DEMOKRAZIA - ASKATASUNA - BOTOA EMAN

Adierazteko **askatasuna** dagoela esaten dugu publikoki nahi duguna esan, idatzi edo egin ahal dugunean.

Ikastetxeko talde guztiek **parte hartzen** dute Eskola Kontseiluko kideen hautaketa-prozesuan.

Talde sozialak **ados jarri** behar dira demokraziak behar bezala funtziona dezan.

Espainolek **botoa eman** dezakete 18 urtetik gora dutenean.

Beharbada, gure **premiak** eta gure gurasoenak ez datoz bat, baina aintzat hartu eta bete behar ditugu.

**Demokraziak** funtziona dezan, gobernuek eta administrazio publikoek **legea** errespetatu behar dute beti.

Gure ikasgelak demokrazia bezala funtzionatzen du, hau da, aske hitz egiten dugu, eta, erabakiak hartu baino lehen, bozkatu egiten dugu.

Beste pertsonak ere **eskubidea** dute beren beharrak adierazteko, eta errespetatu egin behar dugu.

Herri **solidarioa** da gehien behar dutenei laguntzen diena, herritar guztiek eskubide berdinak izan ditzaten.

Bozketa egin ondoren erabakitakoa betetzeko, **konpromiso** irmoa hartu behar dugu denok.

### Nik behar dudana besteek ere behar dute?

Jarduera honetan, taldeka, banakako beharren eta talde sozial baten behar kolektiboen garrantzia aztertuko dute. Ainararen kontakizunean, adibidez, jolasteko guneak hobetu nahi zituen neskatoak.

Jolas honekin, beren taldearen beharrak eta, oro har, hirian dauden beharrak desberdintzen ikasi behar dute ikasleek. Horretarako, beste talde sozial batzuek izan ditzaketen beharretan pentsatu behar dute, denen eskakizunak ahalik eta gehien adosteko.

Hasteko, taldeka, ideia-jasa egingo dute ikasleek identifikatzen dituzten behar nagusiekin. Ikasle bakoitzak bi behar aipatu ditzake (adibidez, garraio publikoa hobetzea eta kaleak oinezkoentzat egitea, bertan jolastu ahal izateko); ideia horiek taldekideekin partekatu eta zerrenda bat egingo dute. Horretarako, kartoi meheak erabiliko dituzte. Irakasleak bertan ikusi ahal izango du zeintzuk diren ikasleen proposamenak. Jarduera bukatu ondoren, kartoi meheak ikasgelako hormetan jarri ahal dira, identifikatutako beharrekin jarraitzeko.

Beharren zerrenda bukatutakoan, irakasleak galdetuko die ea haien ustez gurasoek ere behar horiek izango dituzten, ala beste behar batzuk izango dituzten. Behar berri horiei buruz hitz egin eta ikasleek zerrendatu dituztenekin alderatu ondoren, debatea egingo da, hiritarrek dituzten askotariko beharrei buruzko hausnarketa egiteko. Hala, azalduko zaie behar horien guztien oreka mantentzeko eta besteen beharrak errespetatzeko demokrazia esaten diogula.

Askotariko galderak egin ahal zaizkie, esaterako:

- Zeintzuk dira hiritar gehienek dituzten beharrak?
- Zeintzuk dira laguntza gehien behar duten pertsonen behar nagusiak?
- Aipatu ditugun behar guztietatik, zeintzuk dira ezinbestekoak herritarrentzat?
- Zer nolako beharrei eman behar zaie lehentasuna zure auzoko bizi-kalitatea hobetzeko?

Jarduera bukatutakoan, irakasleak amaierako hausnarketa egin dezake; ikasleei azaldu ahal die zein garrantzitsua den parte hartzea hiritarren beharrei erantzuteko, bai eta prozesu horretan laguntza gehien behar duten taldeak eta defendatzen diren aukera guztiak errespetatzea ere.

## Parte-hartzea ulertzeko antzerkia

Ainararen eta bere lagunen kontakizunarekin jarraituz, ikasgelan istorioa antzeztera animatuko ditugu ikasleak. Horretarako, istorioaren testuak erabil ditzakete, edo berbaldia inprobisatu.

Jolas honetarako, kontakizuneko pertsonaiak ikasleen artean banatuko dira; hala, istorioa antzeztean, parte-hartze prozesu horretan parte hartuko dute.

## Parte-hartzearen horma-irudia

Ainararen kontakizunarekin lan egin eta hiriko parkeak nola hobetzen dituen ikasi ondoren, horma-irudia prestatzea proposatuko diegu ikasleei. Bertan, hitzen, irudien eta bestelako bidez, ikastetxearen beharrak islatu ahal dituzte, adibidez. Edozein motatako beharrak izan daitezke: ikastetxearen antolakuntzarekin zerikusia dutenak, kolektiboenak, gazteenak...

Ikastetxearen beharrak identifikatu ondoren, agintariei transmititzea proposatuko diegu. Horretarako, irakasleek bisita koordinatuko dute, eskakizun horiei erantzuten zaiela bermatze aldera.



### 3. SAIOA: ELKARLANAREKIN LANEAN

**Elkarlana** prozesu bat da; horren bitartez, gobernuak eta administrazio publikoak elkarlanean jarduten dira beste administrazio publiko eta gobernu batzuekin, edota sektore pribatuarekin eta sozietate zibilararekin, politika publikoak zehazte eta zerbitzu publikoak hobetze aldera. Beste era batera esanda, elkarlana da topagune berriak eta elkarriketarako zein lanerako espazioak sortzea, denok batera ekimenak eta zerbitzuak diseinatzen. Administrazio publikoek eta gobernuak gero eta maizago eragiten diote elkarri, eta **elkarlanaren** testuingurua osatzen duten eragileen sareak sustatzen dituzte.

Gobernuaren maila guztietan (tokikoa, eskualdekoa eta estatu mailakoa) dago **elkarlana**; horren bidez, gobernuak beren ekintzak eta erabakiak legitimatzen dituzte, eta gainerako eragileak ere ekintza eta erabaki horien erantzule dira. Istorio berri honetan, Ainarak eta lagunak ikastetxearen inguruan trafikoarekin dagoen arazoa azaltzen dute; hainbat eragile eta instituzioren elkarlanari esker, arazoa konpontzen dute.

Kontakizun honetan hainbat tresna eta metodologia aurkeztu dira arazo sozialak konpontzeko. Hiritarrek, zerbitzari publikoek eta administrazio publikoek ez ezik, beste zenbait eragilek ere lagundu dute arazoa konpontzen, adibidez, enpresek, hirugarren sektoreko erakundeek, unibertsitateek eta elkarteek. Hori dela eta, eragile bakoitzak arazoa konpontzeko egin dezakeen ekarpena azpimarratu behar da kontakizunean.

#### Ainarak eta lagunak trafikoaren arazoa konpondu dute

Txantxangorria ikastetxeko ikasleak eskolara iritsi dira. Batzuk, eskola-garraioan; beste batzuk, garraio publikoan; beste batzuk, senideren batekin; eta, asko, oinez.

–Egun on, Aina.

–Egun on, Aitor. Zer moduz? –galdetu zion Ainarak, eskola aurreko errepidea lasterka gurutzatu ondoren.

–Primeran. Eta zu, nora zoaz korrika?

–Errepidea korrika gurutzatu behar izan dut, ez baitago oinezkoentzako pasabiderik. Gainera, inork ez du kontrolatzen egunero goizez zenbat auto etortzen diren urrun bizi garenok ekartzera, eta arratsaldean gu hartzera. Oso arriskutsua da errepidea gurutzatzea.

Bi lagunak zuzendariarengana joan ziren, eta ikastetxe inguruan trafikoarekin zegoen arazoa komentatu zioten. Aparkatzeko leku gutxi, autobusak gelditzeko leku berezirik ez, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkalekurik ez... Hitz batez, kaos izugarria zen egunero eskolara heltzea.

–Ez dakigu zer egin dezakegun arazoa konpontzeko –onartu zuen Ainarak, etsipenez.



–Tira. Guk bakarrik konpondu ezin badugu, laguntza eskatuko diegu beste pertsona kaltetuei, denon artean konponbidea bilatzeko –azaldu zuen zuzendariak, pentsakor. –Badakit zer egin! Hurrengo Eskola Kontseiluan azalduko dut, gurasoek, eskola-garraioaz arduratzen den enpresaren ordezkariak, Udalean trafikoaz arduratzen den zinegotziak eta Udaltzaingoa ere parte har dezaten. Lagundu ahal digun beste inor bururatzen al zaizue?

–Gu geu! –erantzun zuen Ainarak.

–Hori da. Zuek ere ideiak bota ditzakezue –onartu zuen zuzendariak.

–Egon –bota zuen Aitorrek–. Amak lanean halako zerbait egiten du. Arazoren bat dagoenean, lantalde bat antolatzen du, denon artean arazoa konpontzen saiatzeko. Askotan entzun diot ideien laborategia edo horrelako zerbaiti buruz hizketan.

–Ederto, Aitor! –bota zuen zuzendariak, pozik– Zure amarekin hitz egingo dut lan hau koordinatu dezan. Txantxangorria Laborategia sortuko dugu, trafikoaren arazoa konpontzeko. Bertan, konponbidea bilatuko ditugu denon artean.

–Itxura ona du! –esan zuen Ainarak emozio handiz.

–Hasi gaitzen, ba –esan zien zuzendariak, eta une hartan txirrinak jo zuen.



Proiektua oso garrantzitsua zen eskolarako: denek lagundu behar zuten eskola inguruan trafikoaren arazoa konpontzen eta segurtasuna bermatzen. Hurrengo egunetan, zuzendariak eta Aitorren amak jakinaren gainean

jarri zituzten "Txantxangorria ikastetxeko Ideien Laborategian" parte hartuko zuten pertsona eta erakunde guztiak, eta lehen bilerara deitu zituzten. Bilera horren helburua zen hautemandako arazoak azaltzea eta konponbide posibleak partekatzea.



Zenbait bilera egin ondoren, bertan izandako pertsona eta erakunde guztien laguntzarekin, konponbideak aurkitu ziren. Horrek eragile guztien parte-hartzea eskatzen duen:

- Udalak adostu zuen errepidean oinezkoentzako pasabide jasoak jartzea; hala, autoak astiroago ibiliko ziren, eta oinezkoentzako errazagoa izango zen errepidea gurutzatzea.
- Udaltzainak ordu erdi egongo ziren eskolaren sarreran, trafikoa kontrolatzeko, bai goizean (eskolara heltzeko orduan) bai arratsaldean (eskolatik irteteko orduan).
- Eskola-garraioaz arduratzen zen enpresak, Udalaren laguntzarekin, autobusak aparkatzeko lekua erabiliko zuen eskolaren alboan, eta desgaitasuna zuten pertsonentzako aparkalekua ere jarriko zen.
- Eskolak bide-hezkuntzako ikastaroak antolatuko zituen, ikasleei zuzenduak, bide segurtasunari buruz mintzatzeko.
- Ikasleen gurasoen elkarteak kanpaina antolatuko zuen bizikletaren erabilera sustatzeko, autoaren ordeztu, eta ikastetxeak konpromisoa hartu zuen bizikletak aparkatzeko gunea eskaintzeko.

## Zer ikasi dugu?

Kontakizun honetan **elkarlanaren** kontzeptuari heldu zaio. Gobernu Irekiaren hiru oinarrietako bat da, gardentasunarekin eta parte-hartzearekin batera. Zer ondorio atera dugu istorioa irakurri eta gero?

- Bizitzan, badira arazo asko bakarka konpondu ezin direnak; hori dela eta, **beste pertsona batzuekin elkarrekin lan egin behar dugu**. Elkarlanean aritzean, adostasuna bilatuko da eta errazagoa izango da helburuak lortzea.
- **Arazoak konpontzeko modu asko dago**. Bide asko dago arazoak aztertzeko, azaltzeko eta konpondu edo minimizatzen.
- **Batera lan egitea**, adibidez, ikastetxeak sortutako Ideien Laborategiaren bitartez, lagungarria da **parte-hartzea eta adostasuna** sustatzeko; eta, horrez gain, arazoaren ikuspegi zabalagoa lortzen da.
- Bizitzaren **arlotan jardun daiteke elkarlanean**: eskolan, gobernu eta administrazio publikoen esparruan, lagunartean, familiarartean eta abar. Helburua da partekatuz egoera hobetzea.

Oso positiboa da topagune berriak eta elkarrizketarako zein lanerako espazioak sortzea; izan ere, arazoaren ondoriozko kaltetu guztiek (pertsonen zein erakundeek) parte hartu ahal dute.

Hobekuntzak laster heldu ziren: autoak astiroago ibiltzen ziren, aparkatzeko tokia zegoen eta oinezkoek bazekiten nondik gurutzatu zezaketen errepidea. Gainera, guraso askok lehenetsia eman zioten bizikletari, autoaren aurrean.

Emaitzak ikusita, ikastetxeak erabaki zuen Laborategia beste arazo batzuk konpontzeko erabiltzea, betiere parte-hartzaile guztien laguntzarekin.

Kasu honetan, elkarlana ezinbestekoa izan zen denon ahaleginak batzeko eta arazoak konpontzen lagundu dezaketen proposamen eta ekintzak diseinatzen. Hala, Ainarak eta Aitorrek elkarlaneko ikastetxea lortu zuten; bertan, denek egin dezakete ekarpena.



### Ikasgelan egiteko jolasak: Denok gara beharrezkoak

#### ▲ Helburuak

- Jolasean aktiboki parte hartzea, justizia eta ekitatea balio sozialei buruzko hausnarketa egiteko.
- Bizikidetzatza atsegina izateko, pertsonen interakzioaren eta rol sozialen garrantzia identifikatzea eta balioestea.
- Rol bakoitzetik egin ditzaketen ekarpenak aztertzea.

#### ▲ Deskribapena

Irakasleak ikasleei eskatuko die zirkulu bat osatuz esertzeko. Jarraian, paper-zatiak dituen poltsa/kutxa batekin pasako da, eta ikasleek bana hartuko dute. Paper horietan lanbideak daude idatzita (irakaslea, zurgina, diseinatzailea, abokatu, zientzialaria, gidaria, sukaldaria, haginlaria, aktorea, arkitektoa, kale-garbitzailea, liburuzaina, suhiltzailea, medikua, elektrikaria, erizaina, estilista, postaria, harakina, botikaria, argazkilaria eta abar).

Banaka, ikasleek ozen esango dute zein lanbide hartu duten, denek jakin dezaten zein den bere egitekoa gizartean.

Ondoren, irakasleak bizikidetzan eragiten duen arazoren bat adieraziko du.

Adibidez:

- Hiriko parke publikoak behar bezala zainduta ez egotea.
- Etxeko abereak, adibidez, txakurrak eta katuk, abandonatzea.
- Hirian bizikleta-errei gutxi egotea.
- Udal liburutegian sartzeko arazoak.



Arazoa azaldukoan, irakasleak konponbideren bat proposatzeko eskatuko dio bere lanbidea dela eta arazoa hurbilen duen ikasleari. Ikasleak, beraz, bere proposamena azaldu behar die ikaskideei. Jarraian, ikaskideek beren, iritzia eman, esperientziari buruz mintzatu eta konponbide berriak proposatu ahal dituzte, bakoitza bere ikuspuntutik (egokitu zaien lanbidea kontuan hartuta). Jarduera hau oso garrantzitsua da, ikasleek ulertuko baitute arazoak errazago konpontzen direla bakoitzak bere ikuspuntutik bere iritzia ematen badu.

### Enigmen jolasa

Dinamika honek, adibidez, konpondu beharreko arazo batean sakontzeko, konponbidea bilatzeko edo osatu gabe dagoen istorio baten amaiera jakiteko balio du. Detektibeak bailiran, ikasleek ikerketa egin behar dute irakasleak emandako lagungarrien laguntzarekin.

Denen artean, hipotesiak adierazi eta galderak egin behar dizkiote irakasleari, baina irakasleak "bai" ala "ez" erantzun dezake soilik. Ezin du bestelako informaziorik eman. Hortaz, parte-hartzaileek elkarrekin lan egin behar dute enigma ebazteko.



Adibidez, enigma honako hau izan daiteke: "Tipo bat tabernan sartu da. Edalontzi bat ur eskatu du. Zerbitzaria barra atzean ezkutatu eta, berriz irtetean, mamuz mozorrotuta dago. Bezeroak eskerrak eman eta badoa." Zer gertatu ote da istorio horretan? Azalpena hau da: tabernan sartu den tipoa zotinka ari zen; beraz, zerbitzariak, bezeroari lagundu nahian, mamu mozorroa jantzi du, bezeroa ikaratzeko. Honelako enigmak sinpleak dira, baina, aldi berean, konplexuak ere bai. Izan ere, irudimen handia eta denon laguntza behar dira enigmak ebazteko. Hori dela eta, dinamika hau oso interesgarria da elkarlanean aritze hori uler dezaten.

## Egin dezagun txangoa

Oraingoan, 4-5 ikasleko taldeak egingo ditugu. Talde bakoitzak helmuga bat aukeratu behar du ikasturte amaierako txangorako. Horretarako, taldeko ikasle bakoitzak atsegin duen tokiren bat proposatuko die taldekideei, eta gero, talde osoak toki bakarra adostu beharko du. Ondoren, beste hauek ere adostu beharko dituzte: txangoa egiteko garraioa; data; irteera- eta itzultze-ordutegia; gida kontratatze beharra dagoen ala ez; zer nolako jarduerak egingo dituzten txangoan; kostua eta aurrez dirua lortzeko bideak.

Horiek denak adostu dituztenean, talde bakoitzeko bozeramaileak beren erabakien berri emango die gainerako ikaskideei. Gero, talde guztien artean, proposamen bakarra hautatu beharko dute, aukera guztiak aztertu ondoren. Hala, denek parte hartuko dute erabakian.



## LABURPENA

Gida didaktiko honen bitartez, **Gobernu Irekia zer den azaldu nahi izan diegu Lehen Hezkuntzako ikasleei**. Horretarako, hiru istorio prestatu ditugu, Gobernu Irekiaren hiru oinarriekin –gardentasuna, parte-hartzea eta elkarlana– lotura dutenak, eta hainbat jolas ere bai, kontzeptu horiek modu praktikoan lantzeko, azaltzeko eta ulertzeko.

**Gobernu Irekia** filosofia bat da, gure gizartea gobernatzeko eta bai gobernuak bai administrazio publikoak ulertzeko modu berria. Filosofia honen oinarriak **gardentasuna**, **parte-hartzea** eta **elkarlana** dira, eta helburua zera da: herritarren ezagutza aprobetxatzea gure gizartea hobetzen lagundu dezaten. Hainbat fase dituen bidaia da, eta gizarte osoaren laguntza behar da, haurren ere bai. Hemendik aurrera, zuk ere **Gobernu Irekiaren** komunitatearekin bat egitea espero dugu.

## EBALUAZIOA EGITEKO IRIZPIDEAK

KATEGORIA	BIKAIN	OSO ONDO	ONDO	GUTXIEGI
Irakurketa	Ondo irakurtzen dut, puntuazio-markak errespetatuz eta intonazio egokiarekin.	Ondo irakurtzen dut, baina noizean behin huts egiten dut	Nahiko ondo irakurtzen dut; alabaina, akatsak zuzendu arren, huts egiten dut irakurketan.	Ez dut ondo irakurtzen edo ez dut ondo irakurri nahi.
Testuen ulermena	Primeran ulertzen dut kontakizunean gertatzen dena eta Gobernu Irekiaren kontzeptuarekin duen lotura.	Primeran ulertzen dut kontakizunean gertatzen dena, baina ez dut argi ikusten Gobernu Irekiaren kontzeptuarekin duen lotura.	Ulertzen dut kontakizunean gertatzen dena, gutxi gorabehera, baina ez dut batere argi ikusten Gobernu Irekiaren kontzeptuarekin duen lotura.	Ez dut ulertzen kontakizunean gertatzen dena, ez eta Gobernu Irekiaren kontzeptuarekin zer lotura duen ere.
Jardueretan parte hartzea	Jarduera guztietan parte hartzen dut, aktiboki, gustuko baitut parte hartzea.	Jarduera guztietan parte hartzen dut, aktiboki, irakasleak agindu egiten didalako.	Noizean behin jardueretan parte hartzen dut, irakasleak agindu egiten didalako.	Ez dut jardueretan parte hartzen, irakasleak agindu arren.
Parte-hartzearen kalitatea	Nire ekarpenak positiboak dira, eta guztiz bat datoz jardueran eskatzen denarekin.	Nire ekarpenak positiboak dira, eta bat datoz jardueran eskatzen denarekin.	Ez dut gehiegi parte hartzen; nahikoa izaten da, baina ez dator bat jardueran eskatzen denarekin.	Nire ekarpenak ez dira oso adierazgarriak, eta ikaskideei gutxi laguntzen diete.
Kontzeptuen ulermena	Ulertzen ditut Gobernu Irekiarekin zerikusia duten kontzeptuak, eta neure bizitzarekin lotzen ditut.	Ulertzen ditut Gobernu Irekiarekin zerikusia duten kontzeptu gehienak, eta neure bizitzarekin lotzen ditut, gutxi gorabehera.	Azaldutako kontzeptu batzuk ulertzen ditut, baina ez dut loturarik ikusten horien eta nire bizitzaren artean.	Ez ditut ulertzen azaldutako kontzeptuak, eta ez dakit zer lotura duten nire bizitzarekin.

# EZAGUTU GOBERNU IREKIAREN BALIOAK AINARAREKIN ETA BERE IKASKIDEEKIN



Gida didaktikoa  
Lehen Hezkuntzarako

- Ikasleen koadernoak -

## AINARAREN TXANGOA

Ainarak 10 urte ditu. Kostaldeko hiri ertain bateko Txantxangorria ikastetxeko ikaslea da. Langile fina da, eta harreman ezin hobea du bere ikaskideekin.



Gabonetako oporrak bukatu eta denbora gutxira, bolada euritsu eta hotza izan ondoren, Ainara gaizki sentitzen hasi zen.

–*Maisu, ez nago ondo*—esan zion maisu Kepari.

–*Aitari deituko diogu. Medikuarenera eramango zaitu, azterketa egin diezazuten. Uste dut hotzeria duzula*—erantzun zion.

Kepak aitari deitu zion telefonoz, eta komentatu segur aski alabak sukarra zuela. Minutu gutxian heldu zen Ainararen aita, Ander, ikastetxera.

–*Goazen, hitzordua eskatu dut medikuarenean.*

Osasun-zentroan, medikuak Ainarari esan zion hotzeri galanta zuela, eta sukar altua. Beraz, astebete etxean geratu behar zela, eskolara joan gabe.

–*Kulturaren asteko ekintza guztiak galduko ditut*—esan zuen Ainarak, atsekabez.

–*Ez kezkatu, maitea. Kontatuko dizute zer egin duten.*

Ainara etxean gaixorik zegoen bitartean, eskolan kulturaren asteko ekintzak prestatu zituzten: bizikidetzak jardunaldiak aitona-amonekin, musika kontzertuak, argazkien erakusketak eta askoz gehiago.

Irakasleak ikasleei esan zien hurrengo astean, astelehenean, txangoa egingo zutela autonomia erkidegoaren hiriburura, Gobernu Jauregia, Parlamentua eta Gobernuaren Ordezkaritza bisitatzerako, eta, beraz, gurasoen baimena sinatuta eraman behar zutela. Ikasleak harritu egin ziren, ez baitzuten halakorik espero, eta poztu ere bai.

Astelehenean, txangoaren egunean, Ainararen aitak eskolara eraman zuen alaba, egunero bezala. Ainarak motxila zeraman, liburuekin eta hamaiketakoarekin, eskolara bueltatzeko gogotsu. Jendearen joan-

etorria nabaria zen eskolan. Hala ere, Ainarak eta aitak ez zuten ezer arrarorik sumatu, beraz, agur esan zioten elkarri.

–*Egun on, Ainara. Pozten naiz zu berriro ikustez! Ikusten dut sendatu egin zarela.*

–*Egun on, maisu. Zer gertatzen ari da gaur eskolan?*—galdetu zion, ikaskideak autobusera igotzen zirela ikustean.

–*Gaur txangoa egingo dugu, hiriburura. Gurasoen baimena ekarri duzu?*

–*Txangoa? Ez nuen horren berririk!*—bota zuen Ainarak, harrituta.

–*Sentitzen dut, Ainara. Uste nuen bazenekiela. Gaur txangoa dugu. Baina, gurasoen baimenik gabe, ezin zara etorri.*

Mikelek, Ainararen ikaskideak, elkarrizketa entzun zuen, eta, autobusera igotakoan, beste ikaskideei kontatu zien gertatutakoa. Minutu gutxian, denak autobusetik jaitsi eta Keparengana hurbildu ziren.

–*Ainara gurekin ez badator, ez dugu txangoa egin nahi*—esan zion Mikelek Kepari. *Ainara ere gurekin etortzea nahi dugu. Zergatik ez diozu aitari deitzen, eta baimena sinatzeko eskatzen?*

–*Pozten naiz hori entzuteaz, Mikel. Arrazoi duzue. Txangoari buruzko informazioa eskolaren webgunean argitaratuta egon beharko litzateke, aurrerapen nahikoarekin. Primeran iruditzen zait Ainararekin solidarioak izatea. Aitari deituko diot telefonoz.*

Minutu gutxi geroago, Ainararen aita eskolara itzuli zen, eta, baimena sinatutakoan, autobusa martxan jarri zen.



Bidean zeudela, irakasleak mikrofonoa eskatu zion gidariari, eta ikasleei zuzendu zen.

–Gaur egin duzuen oso garrantzitsua da. Egoera zaila zen, eta laguntza eskaini diozue zuen ikaskide Ainarari, bera ere gurekin etor zedin. Harro egon zaitezke. Zuei esker, hemendik aurrera, eskolak informazio guztia argitaratuko du webgunean, eta, horrez gain, mezu elektronikoa bidaliko diegu gurasoei.

Txangoan, Ainarak eta bere ikaskideek gauza mordoa ikasi zuten: Gobernu Jauregia nolakoa den, Parlamentu Autonomikoak nola funtzionatzen duen eta Gobernuaren Ordezkaritzaren funtzioak zeintzuk diren.

Ainarak eta ikaskideek sustatu zituzten ikastetxean gardentasunaren printzipioak aplikatzen hasteko neurriak. Haiei esker, Txantxangorria ikastetxea Gobernu Irekirantz zuzendu zen, eta, horretarako, gardentasuna izan zen lehen neurria.

## Zer ikasi dugu?

Ainararen txangoa kontakizunean honako hau ikasi dugu:

- Administrazio Publikoak (kasu honetan, Txantxangorria ikastetxeak) bere jarduerari buruzko informazioa **eman behar** du. Informazioa publikoa ez bada, eskatu ahal dugu.
- **Gardentasuna ezinbestekoa da** ikastetxe, erakunde publiko eta sistema demokratiko guztietan.
- Gurasoei Internet bidez **informazioa helarazteko sistema** berria gardentasuna sustatzeko bide bat da. Zenbat eta berrikuntza gehiago, orduan eta gardenagoak izango dira erakundeak.

## Gardentasuna lantzeko hizkiak


Hona hemen gardentasunari buruzko hizki zopa. Gardentasunaren balioarekin lotura duten hitz hauek bilatu behar dituzu.

### ERRESPETUA - PARTE-HARTZEA - ZINTZOTASUNA - KONFIANTZA BERRIKUNTZA - ZABALTASUNA - EGIA - GARDENTASUNA

F Y T R A N S P A R E N C I A  
R I T E O T E P S E R L E U F  
A R P A R T I C I P A C I O N  
E G A T P H U A N Q U I P O D  
I P O L I U T P C R O J O A E  
A N D A R M K V E C T O D Z L  
E T N E C I V I R E C R T E A  
B L A O N L P U I R E C O U R  
E M G H V D E L D V T E S Q I  
C O N F I A N Z A C R R O N D  
R B C E P D C C D H E R B A O  
E R A M O S B I V A P I L R E  
A O E I U Z S D O G Ñ L I F U  
B L U F H I A I C N E L A V I

## AINARAK ETA LAGUNEK PARKEAK HOBETU DITUZTE

Ainara eskolara doa, pentsakor. Eskolarako bidean, autobusetik, hiriko parke eta lorategiei erreparatu die. Konturatu da hiriko parkeek berdegune eta atsedeen hartzeko gune zabalak dituztela, baina parke bakarrak duela haurrek jolasteko lekua.



Eskolara heldutakoan, ikasgelan sartzeko zain daudela, Aitor eta Irune parkeei buruz hizketan hasi dira:

—Atzo Gernika parkean egon nintzen jolasean, txakurrarekin. Jolasteko guneak itxita zeuden, konponketak egiten ari direlako. —esan zuen Aitorrek, etsipen aurpegia jarriz.

—Nire auzoko parkeak ere ez du jolasteko gune onik. Jolasteko egitura gehienak hondatuta daude, beraz, gurasoek ez didate uzten bertan jolasten. —adierazi zuen Irunek, hastear zegoen eskolarako liburuak motxilatik ateratzen zituen bitartean.

—Ideia bat daukat! —oihukatu zuen Ainarak—. Eskolako iragarki-taulan ikusi dut Udalak Haurren Kontseilua sortuko duela.

—Haurren zer? —galdetu zion Aitorrek, ulertu ezinik.

—Haurren Kontseilua. Amak azaldu dit haurren talde bat dela, gure izenean jardungo duena. Hala, Udalari eskatuko dio gure, hau da, haurron, arazoak konpontzeko.

—Jesus, Ainara, egunean zaude! —bota zuen Irunek, algaraka.

—Kontua da galdera pila egiten ditudala —esan zuen Ainarak, txantxetan. Kontseilu hori aukera ezin hobea da hiriko parkeetako gabeziak komentatzeko, eta bertan jolasteko aukerarik ez dugula azaltzeko. Parke guztiak hobetu behar dira, jolasteko guneak handitzeko.

—Orduan, Haurren Kontseiluarekin harremanetan jarriko al gara arazoa konpontzeko? —esan zuen Aitorrek, konbentzita.

Ainarak baimena eskatu zion maisuari, ideari buruz hitz egiteko. Ikaskideei azaldu zion hiriko parkeetan zeuden gabeziak, eta hiriko Haurren Kontseiluan parte hartzeko aukera. Denak ados zeuden jolasteko guneak hobetu behar zirela.

—Ba al dago boluntariorik? —galdetu zuen irakasleak— Ikasle kopurua ikusita, bi ordezkari egon daitezke.

—Niri gustatuko litzaidake ordezkaria izatea. Beste norbait animatuko da? —bota zuen Ainarak.

—Bai, ni —erantzun zion Aitorrek.


—Baita ni ere! —esan zuen Liherrek, oihuka.

—Ni ere bai —esan zuen Irunek.

Denek elkarri begiratu zioten: lau hautagai zeuden, baina bi ordezkari baino ez ziren behar. Hortaz, konponbide bat bilatu behar zuten. Irakasleak proposamena bota zien:

—Bada, zergatik ez duzue bozketa egiten, zuen bi ordezkariak hautatzeko? Bi pertsona horiek erantzukizun handia dute, izan ere, haiek transmitituko dituzte zuen eskariak. Beraz, hobe da denon artean eta demokratikoki aukeratzea nortzuk izan behar diren.

Idea primeran iruditu zitzaion, beraz, goiz hartan bertan prestatu zuten bozketa, boto-ontzia eta guzti, irakaslearen laguntzarekin. Lau hautagaien artean, ikasle bakoitzak bi hautatu behar zituen, horien izenak paper batean idatzi eta paper hori boto-ontzian sartu, bozketetan beti egiten den bezala.



Botoak zenbatu zituzten; Ainara eta Aitor izan ziren garaileak, hortaz, lanari ekin zioten. Ikaskideekin hitz egin eta koaderno batean idatzi zituzten bakoitzaren auzoko lorategi eta parkeetako gabeziak. Izan ere, hiriko txoko guztietatik etorritako ikasleak zeuden eskolan.


Ondorioa hauxe izan zen: hiriko 10 parke (guztira, 22 zeuden hirian) hobekuntzak behar zituzten. Batzuetan, altzariak aldatu behar ziren; beste batzuetan, jolasteko guneak handitu; eta baten batean, haurrentzako guneak prestatu.

Hiriko Haurren Kontseiluaren hurrengo bilera, hitza hartu zuten Ainarak eta Aitorrek, eta parke eta lorategien zinegotzi arduradunari eta alkateari transmititu zizkieten ikaskideen proposamenak.

–Eskerrik asko, Ainara eta Aitor –esan zien alkateak–. Harro egon zaitezkete, lan bikaina egin duzue. Bagenekien hobekuntzak egin behar zirela, baina ez genekien egoera hain larria zenik. Hurrengo osoko bilkuran, Udal Gobernuak akordio bat proposatuko du, hiriko parkeetan hurrek jolasteko guneak hobetzeko edo zaharbertitzeko. Denon artean zaindu behar ditugu parke eta lorategiak.

Ainara eta Aitor poz-ozik zeuden: buru-belarri lan egin eta gero, eta ikaskideen parte-hartzearekin, lortu zuten Udalak konpromisoa hartzea hiriko parke eta lorategietan jolasteko guneak hobetzeko.

Urtebete geroago, parke gehienek jolasteko gunea zuten. Hala, Ainararen ideia irtotuz joan zen, ikasle guztien laguntzarekin, eta egia bihurtu zen. Une horretatik aurrera, Ainarak, Aitorrek, Liherrak, Irunek eta lagun guztiek jolasteko gune bikainak izan zituzten hiriko parke guztietan.



## Zer ikasi dugu?

Istorioan, Ainarak eta ikaskideek lortu dute hiriko parkeetan jolasteko dauden guneak hobetzea. Hortaz, zenbait gauza ikasi ditugu:

- Ingurunea zaindu behar da. Ezin dugu ahaztu parkeak, bestelako instalazio publikoak eta berdeguneak guztionak direla, eta denon ardura dela horiek zaintzea eta hobetzen laguntzea.
- Instalazio publikoetan zerbait hondatuta dagoela ikustean edo gabeziaren bat dagoela uste dugunean, **agintariei eskatu** behar diegu horiek konpontzeko. Errespetuz eta gizatasunez, gure beharrak jakinarazi behar dizkiegu gobernuei eta administrazio publikoei.
- **Parte hartzeko mekanismoak** daude. Kontakizunean, adibidez, Ainarak eta Aitorrek hiriko Haurren Kontseiluan jakinarazten dituzte beren eskakizunak. Beti bilatu behar da modurik egokiena erabaki publikoetan parte hartzeko.
- **Denok dugu parte hartzeko eskubidea.** Istorioan ikusi dugun bezala, ikaskideek Ainara eta Aitor hautatu dituzte ordezkari; hori dela eta, ikaskideen eskakizunak biltzen dituzte, eta dagokien pertsonari transmititzen.
- **Ahal den guztietan parte hartu behar da.** Gure iritzia entzunarazi behar dugu. Hori dela eta, erabaki publikoak hartzeko prozesuan parte hartu behar dugu.

## Parte-hartzea sustatzeko esaldiak

Jarduera honetan, ikasleek parte-hartzearekin zerikusia duten zenbait esaldi osatu behar dituzte. Horretarako, jarraian ageri diren hitzak erabili behar dituzte. Hasieran, bikoteka egingo dute lan; gero, denek batera.

### ADOS JARRI - PREMIAK - LEGEA - PARTE HARTZEN - ESKUBIDEA KONPROMISO - SOLIDARIOA - DEMOKRAZIA - ASKATASUNA - BOTOA EMAN

Adierazteko \_\_\_\_\_ dagoela esaten dugu publikoki nahi duguna esan, idatzi edo egin ahal dugunean.

Ikastetxeko talde guztiek \_\_\_\_\_ dute Eskola Kontseiluko kideen hautaketa-prozesuan.

Talde sozialak \_\_\_\_\_ behar dira demokraziak behar bezala funtziona dezan.

Espainolek \_\_\_\_\_ dezakete 18 urtetik gora dutenean.

Beharbada, gure \_\_\_\_\_ eta gure gurasoenak ez datoz bat, baina aintzat hartu eta bete behar ditugu.

Demokraziak funtziona dezan, gobernuek eta administrazio publikoek \_\_\_\_\_ errespetatu behar dute beti.

Gure ikasgelak \_\_\_\_\_ bezala funtzionatzen du, hau da, aske hitz egiten dugu, eta, erabakiak hartu baino lehen, bozkatu egiten dugu.

Beste pertsonak ere \_\_\_\_\_ dute beren beharrak adierazteko, eta errespetatu egin behar dugu.

Herri \_\_\_\_\_ da gehien behar dutenei laguntzen diena, herritar guztiek eskubide berdinak izan ditzaten.

Bozketa egin ondoren erabakitakoa betetzeko, \_\_\_\_\_ irmoa hartu behar dugu denok.





## AINARAK ETA LAGUNEK TRAFIKOAREN ARAZOA KONPONDU DUTE

Txantxangorria ikastetxeko ikasleak eskolara iritsi dira. Batzuk, eskola-garraioan; beste batzuk, garraio publikoan; beste batzuk, senideren batekin; eta, asko, oinez.

—Egun on, Ainar.

—Egun on, Aitor. Zer moduz? —galdetu zion Ainarak, eskola aurreko errepidea lasterka gurutzatu ondoren.

—Primeran. Eta zu, nora zoaz korrika?

—Errepidea korrika gurutzatu behar izan dut, ez baitago oinezkoentzako pasabiderik. Gainera, inork ez du kontrolatzen egunero goizez zenbat auto etortzen diren urrun bizi garenok ekartzera, eta arratsalde zuzen hartzera. Oso arriskutsua da errepidea gurutzatzea. Zuzendariari galdetuko diot zer egin dezakegun egoera hobetzeko.

—Primeran, zurekin joango naiz. —esan zion Aitorrek, korridorean sartuz.



Bi lagunak zuzendariarengana joan ziren, eta ikastetxe inguruan trafikoarekin zegoen arazoa komentatu zioten. Aparkatzeko leku gutxi, autobusak gelditzeko leku berezirik ez, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkalekurik ez... Hitz batez, kaos izugarria zen egunero eskolara heltzea.

—Ez dakigu zer egin dezakegun arazoa konpontzeko —onartu zuen Ainarak, etsipenez.

—Tira. Guk bakarrik konpondu ezin badugu, laguntza eskatuko diegu beste pertsona kaltetuei, denon artean konponbidea bilatzeko —azaldu zuen zuzendariak, pentsakor. —Badakit zer egin! Hurrengo Eskola Kontseiluan azalduko dut, gurasoek, eskola-garraioaz arduratzen den enpresaren ordezkariak, Udalean trafikoaz arduratzen den zinegotziak eta Udaltzaingoa ere parte har dezaten. Lagundu ahal digun beste inor bururatzen al zaizue?

—Gu geu! —erantzun zuen Ainarak.

—Hori da. Zuek ere ideiak bota ditzakezue. —onartu zuen zuzendariak.


—Egun —bota zuen Aitorrek—. Amak lanean halako zerbait egiten du. Arazoren bat dagoenean, lantalde bat antolatzen du,

denen artean arazoa konpontzen saiatzeko. Askotan entzun diot ideien laborategia edo horrelako zerbaiti buruz hizketan.

—Ederto, Aitor! —bota zuen zuzendariak, pozik— Zure amarekin hitz egingo dut lan hau koordinatu dezan. Txantxangorria Laborategia sortuko dugu, trafikoaren arazoa konpontzeko. Bertan, konponbidea bilatuko ditugu denon artean.

—Itxura ona du! —esan zuen Ainarak emozio handiz.

—Hasi gaitezen, ba —esan zien zuzendariak, eta une hartan txirrinak jo zuen.



Proiektua oso garrantzitsua zen eskolarako: denek lagundu behar zuten eskola inguruan trafikoaren arazoa konpontzen eta segurtasuna bermatzen. Hurrengo egunetan, zuzendariak eta Aitorren amak jakinaren gainean jarri zituzten "Txantxangorria ikastetxeko Ideien Laborategian" parte hartuko zuten pertsona eta erakunde guztiak, eta lehen bilerara deitu zituzten. Bilera horren helburua zen hautemandako arazoak azaltzea eta konponbide posibleak partekatzea.

Zenbait bilera egin ondoren, bertan izandako pertsona eta erakunde guztien laguntzarekin, konponbideak aurkitu ziren. Horrek eragile guztien parte-hartzea eskatzen duen:

- Udalak adostu zuen errepidean oinezkoentzako pasabide jasoak jartzea; hala, autoak astiroago ibiliko ziren, eta oinezkoentzako errazagoa izango zen errepidea gurutzatzea.
- Udaltzainak ordu erdi egongo ziren eskolaren sarreran, trafiko kontrolatzeko, bai goizean (eskolara heltzeko orduan) bai arratsaldean (eskolatik irteteko orduan).
- Eskola-garraioaz arduratzen zen enpresak, Udalaren laguntzarekin, autobusak aparkatzeko lekua erabiliko zuen eskolaren alboan, eta desgaitasuna zuten pertsonentzako aparkalekua ere jarriko zen.
- Eskolak bide-hezkuntzako ikastaroak antolatuko zituen, ikasleei zuzendutako, bide segurtasunari buruz mintzatzeko.
- Ikasleen gurasoen elkarteak kanpaina antolatuko zuen bizikletaren erabilera sustatzeko, autoaren orde, eta ikastetxeak konpromisoa hartu zuen bizikletak aparkatzeko gunea eskaintzeko.



Hobekuntzak laster heldu ziren: autoak astiroago ibiltzen ziren, aparkatzeko tokia zegoen eta oinezkoek bazekiten nondik gurutzatu zezaketen errepidea. Gainera, guraso askok lehenasuna eman zioten bizikletari, autoaren aurrean.

Emaitzak ikusita, ikastetxeak erabaki zuen Laborategia beste arazo batzuk konpontzeko erabiltzea, betiere parte-hartzaile guztien laguntzarekin.

Kasu honetan, elkarlana ezinbestekoa izan zen denon ahaleginak batzeko eta arazoak konpontzen lagundu dezaketen proposamen eta ekintzak diseinatzeko. Hala, Ainarak eta Aitorrek elkarlaneko ikastetxea lortu zuten; bertan, denek egin dezakete ekarpena.

## Zer ikasi dugu?

Kontakizun honetan **elkarlanaren** kontzeptuari heldu zaio. Gobernu Irekiaren hiru oinarrietako bat da, gardentasunarekin eta parte-hartzearekin batera. Zer ondorio atera dugu istorioa irakurri eta gero?

- Bizitzan, badira arazo asko bakarka konpondu ezin direnak; hori dela eta, **beste pertsona batzuekin elkarrekin lan egin behar dugu**. Elkarlanean aritzean, adostasuna bilatuko da eta errazagoa izango da helburuak lortzea.
- **Arazoak konpontzeko modu asko dago**. Bide asko dago arazoak aztertzeke, azaltzeko eta konpondu edo minimizatzeko.
- **Batera lan egitea**, adibidez, ikastetxeak sortutako Ideien Laborategiaren bitartez, lagungarria da **parte-hartzea eta adostasuna** sustatzeko; eta, horrez gain, arazoaren ikuspegi zabalagoa lortzen da.
- Bizitzaren **arloan guztietan jardun daiteke elkarlanean**: eskolan, gobernu eta administrazio publikoen esparruan, lagunartean, familiaretan eta abar. Helburua da partekatuz egoera hobetzea.

Oso positiboa da topagune berriak eta elkarriketarako zein lanerako espazioak sortzea; izan ere, arazoaren ondoriozko kaltetu guztiek (pertsonek zein erakundeek) parte hartu ahal dute.

## LABURPENA

Gida honen bitartez, **Gobernu Irekia zer den azaldu nahi izan diegu Lehen Hezkuntzako ikasleei**. Horretarako, Ainararen hiru istorioak prestatu ditugu, Gobernu Irekiaren hiru oinarriekin—gardentasuna, parte-hartzea eta elkarlana—lotura dutenak, eta hainbat jolas ere bai, kontzeptu horiek modu praktikoan lantzeko, azaltzeko eta ulertzeko.

**Gobernu Irekia** gure gizartea gobernatzeko eta bai gobernuak bai administrazio publikoak ulertzeko modu berria da. Filosofia honen oinarriak **gardentasuna, parte-hartzea** eta **elkarlana** dira, eta helburua zera da: herritarren ezagutza aprobeztatzea gure gizartea hobetzen lagundu dezaten. Hainbat fase dituen bidaia da, eta gizarte osoaren laguntza behar da, haurrena ere bai. Hemendik aurrera, zuk ere **Gobernu Irekiaren** komunitatearekin bat egitea espero dugu.

TÍTULO: GIDA DIDAKTIKOA. GOBERNU IREKIA. LEHEN HEZKUNTZA

*“Este documento no es una traducción oficial. Aunque se ha procurado garantizar que esta versión corresponda a los textos originales, la única versión oficial es el texto en castellano disponible en el sitio web del INTEF y en el Portal de Transparencia de la Administración General del Estado”*

*Publicación incluida en el programa editorial del Ministerio de Política Territorial y Función Pública*


**Edita:**

© Ministerio de Política Territorial y Función Pública

Ministerio de Educación y Formación Profesional

NIPO: 277-19-008-2 En línea

NIPO: 847-19-028-5 En línea



**Imprime:**

Subdirección General de Recursos, Publicaciones y Documentación  
Ministerio de Política Territorial y Función Pública



GOBIERNO DE ESPAÑA

MINISTERIO DE EDUCACIÓN Y FORMACIÓN PROFESIONAL



INSTITUTO NACIONAL DE TECNOLOGÍAS EDUCATIVAS Y DE FORMACIÓN DEL PROFESORADO



MINISTERIO DE POLÍTICA TERRITORIAL Y FUNCIÓN PÚBLICA